



**2023KO UZTAILAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 17an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2023ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkurako eta uztailaren 5ean egindako ezohiko bilkurako aktak, idatzita dauden moduan onartu direlarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 53 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA HIRU MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA BI euro ETA HAMAR zentimokoa (103.262,10 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 103 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko ekainaren 7tik heriotzagatik.
- 19-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko ekainaren 5etik aurrera asteen 4 ordutik 22 ordura, onuradunen osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 15ekoa izango da.
- 23-11-08 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko ekainaren 5ean eta baja 2023ko ekainaren 7an onuradunak eskatuta. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa izan da.



- 23-11-09 zenbakidun esped.: etxekeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko uztailaren 3an, astean 4 orduz etxekeko garbiketa eta laguntza pertsonalerako. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 103 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea uztailetik, onuradunaren heriotzagatik.
- 23-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 147 €-ko dirulaguntza ematea ekainetik abendura. Eman daitekeenaren % 98 da.
- 23-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 98,14 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura eta lehen mailako premietarako hilean 80 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-011 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 98,14 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura eta lehen mailako premietarako hilean 80 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Esku-hartze proposamena.-

- 23-15-05 zenbakidun esped.: ikerketa eta ebaluazio txostena egitea eta hura egiteko 950 €-ko aurrekontua onartzea.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Oin Arin Dantza Taldeari.-

2023 urteko ekainean, Valentziako taldearekin emanaldia, Dantzari Txiki eguna eta San Juan sua antolatzeagatik, 790,49 € ematea.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

- Lazkaoko Musika Bandari.-



2023 urteko ekainaren 30ean, gaueko kontzertua antolatzeagatik 1.573 € ematea.

Dirulaguntza 2023ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

- Gerriko Kultur Elkarteari.-

Gerriko Kultur elkarteari, 2023ko urtarriletik ekainera bitartean aurrera eraman duen Mintzalagun jarduera antolatzeagatik, dagokion 5.050 €-ko lehen ordainketa egitea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

VI.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2023an izenpetutako hitzarmenaren arabera, 17.000 € ematea mantentze gastuetarako eta 11.500 € ematea jarduerak aurrera eramateko.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.02.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkata-

rik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei zazpigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
ERROTAUNDI, S.L.	155 €
GUZTIRA	155 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ostiralean Ansoategi Herriko tabernan egin nahi den afarirako baimen eskaerari emandako erantzunarekin ez dagoela ados.

Alkateak erantzun dio orain arte oinezkoen bidea urtean behin ixten zela afari hori antolatzeagatik, eta orain bi astetan bi eskaera jaso direla Herriko tabernan afari desberdinak egiteko, horretarako oinezkoen pasabidea itxi behar izanik. Aurreko astekoa onartu zela eta hau ukatu dela bigarren eskaera delako.

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) dio hau salbuespena izan dela, lehengo astekoa inaugurazio ospakizun bat zela eta ez zutela beraiek eskatu. Aldiz orain ospatuko dena urteroko afaria dela eta EH Bilduk eskatu duela baimena.

Alkateak erantzun du berriz ere aztertuko dutela gaia.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudarik.

